



IRAKASLEEN HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK

AUKERA ANITZEKO GALDEKIZUNA

HLEA

- Proba honek 70 galdera ditu. Gainditzeko 45 puntu lortu behar dira.
- Lau aukeren artean erantzun **egokiena** aukeratu eta **erantzun-orrian** markatu.
- Erantzun okerrengeatik ez zaizu punturik kenduko.
- Erantzuteko denbora: **ordubete**.

1 Begira-begira zegoen berak ereindako hazia nola zen.

- a) jasotzen
- b) zutitzen
- c) eraikitzen
- d) ernatzen

2 "..... ez nintzateke gerran dagoen herrialde batera joango."

- a) Ezta zoratuta ere
- b) Zoratuta ere
- c) Zoratuta ere ez
- d) Ezta zoratuta

3 "Ez dakit zer gertatzen zaion, baina bileretan isilik egoten da, ere esan gabe". Zein EZ DA egokia?

- a) txintik
- b) zipitzik
- c) tutik
- d) funtsik

4 Ixilik egongo naiz, ez daukadalako

- a) zertan hitz egin.
- b) zertan hitz egiterik.
- c) hitz egin behar.
- d) zergatik hitz egin behar.

5 "Ezer izatekotan, emozioen itzultzaile gara aktoreok." Bilatu baliokidea.

- a) Zerbait izateko, emozioen itzultzaile izan behar genuke.
- b) Zerbait baldin bagara, emozioen itzultzaile gara.
- c) Zerbait ez bagara, emozioen itzultzaile gara.
- d) Zerbait izate aldera, emozioen itzultzaile gara.

6 Agian ez duzu diru horren beharrik izango, baina gorde ezazu.

- a) zer erremedio
- b) zer dela eta
- c) zer esanik ez
- d) zer gerta ere

7 Nagusiak soldata handiagoa jar langileari, baina ez!

- a) ziezaion
- b) zekioken
- c) ziezaioketen
- d) ziezaioken



8 Gaztea da eta argia, baina ez dotore horietakoa, samarra aukeran.

- a) zarpail
- b) zakar
- c) lerdin
- d) lirain

9 Kontuz ibili negoziante horiekin: ez engainatu!

- a) diezazutela
- b) zaitzatela
- c) ezazue
- d) zaituztela

10 Bikote batean hitzak EZ DIRA sinonimoak. Non?

- a) ohartu / erreparatu
- b) sustraitu / errotu
- c) miatzatu / harrapatu
- d) mindu / garraztu

11 Non dago ortografia-akatsa?

- a) Ezkorra
- b) Surbil
- c) Xarmanta
- d) Hazia

12 "Egun polita izan da eta nago!" Zein dago GAIZKI?

- a) pozaren pozez
- b) pozarren
- c) kristoren pozik
- d) pozak zoratzen

13 Baratzea beteta daukat eta ekarri dizut.

- a) tomate poltsa bat
- b) poltsa bat tomate
- c) poltsa tomate bat
- d) tomatezko poltsa bat

14 Hantxe agertu zitzaigun guztiz prestatua eta dotore jantzia.

- a) oso
- b) pixka bat
- c) asko
- d) erabat

15 "Istorio zaharra xuxurlatu zioten." Zer esan nahi du?

- a) Maitasunez kontatu zioten.
- b) Ozenki esan zioten.
- c) Ahapeka esan zioten.
- d) Zehazki kontatu zioten.

16 Oskarbi dago zerua;.....

- a) berehala dugu ekaitza.
- b) ostarte bat edo beste ageri da.
- c) ez dugu laino izpirik ere.
- d) atertuko ahal du behingoz!

17 "Pozik al gauden? Bai, zera! Ez hurrik eman ere!" Zer adierazi nahi du?

- a) Ez daude pozik, ezer eman ez dietelako.
- b) Oso urrun daude poztasunetik.
- c) Hurrik gabe gelditu dira, eta pena.
- d) Gutxi behar dute pozik egoteko.



18 Esan , burtsa asko jaitsiko da hurrengo egunetan.

- a) duten arabera
- b) omen dute
- c) dutelaren arabera
- d) dutenez

19 "Esanak esan, gauzek bere horretan jarraituko dute." Zer esan nahi du?

- a) Gauzak isilean konpontzen direla.
- b) Nahiz eta hitz egin, egoera ez dela aldatuko.
- c) Gauzak garbi esaten ez badira, ez direla aldatuko.
- d) Gauzak errepikatu egin behar direla, noizbait aldatuko badira.

20 "Helduko ahal da askatasuna ikusiko dugun eguna!" Zer adierazten du?

- a) Zalantza
- b) Nahia
- c) Etsipena
- d) Ziurtasuna

21 Zein da zuzena?

- a) Elkar erabakiko dugu zer egin.
- b) Nahi baduzu elkar joango gara etxera.
- c) Elkar egongo gara bihar arratsaldean.
- d) Elkar ezagutzea nahi nuke lehenbizi.

22 Hitz hauetako bat EZ DA gorputzaren atala. Zein?

- a) Aldaka
- b) Muturrekoa
- c) Erraia
- d) Garondoa

23 Zuku hori edan baino lehen, pixka bat botilari, alaba!

- a) nahastu
- b) mugitu
- c) erabili
- d) eragin

24 Ni laguntzeko gertu nauzu; beraz, edozein etor zintezke etxera.

- a) momentun
- b) momentuan
- c) momentuetan
- d) momentutan

25 "Horixe ardura didala zure etorkizunak, Maider." Zer esan nahi du?

- a) Maiderren etorkizunaren ardura berak duela.
- b) Maiderren etorkizunak bost axola diola.
- c) Maiderren geroak axola diola.
- d) Maider kinka larrian dagoela.

26 "Hainbeste laudorio eman ondoren, ez zekiten zer erantsi." Zertan zebiltzan?

- a) Erasotzen
- b) Madarikatzen
- c) Goraipatzen
- d) Iraintzen

27 Gortinak aukeratzera joan eta ikusi genituen guztietatik bakarrik egin zidaten grazia pixka bat.

- a) laurek
- b) lauk
- c) lau
- d) laurak



28 Gustura zebilen lagunekin eta egin zuen eskolatik.

- a) airez
- b) kilker
- c) hankaz
- d) piper

29 "Hitza hartu duenetik, hor ari da Mikel jardun eta jardun." Zer esan nahi du?

- a) Hara eta hona dabilela gelditu gabe.
- b) Keinuka ari dela.
- c) Isildu ere ez dela egin.
- d) Neka-neka eginda dagoela.

30 Markina-Xemeingo pilotalekutik atera dira munduko zesta-puntako jokalaria onenak; izan da benetan.

- a) harrobi oparoa
- b) karobi emankorra
- c) sehaska antzua
- d) iturri agorra

31 Izarrek ez dute eguzkiaren beharrik; eguzkiak ere ez

- a) izarrarenik.
- b) izarrik.
- c) izarrenik.
- d) izarranik.

32 Telebista-saio horretako galdera zaila zen eta ez zuen asmatu.

- a) inor
- b) inortxok ere
- c) inork ez
- d) batek ere ez

33 Heltzen goazen neurrian konturatzen gara gure aurrekoetatik badugula zer

- a) ikasia.
- b) ikasteko.
- c) ikastekorik.
- d) ikastea.

34 Badakit ondo asko ez naizela tontorrera iritsiko;, jarraitu egingo dut .

- a) hori dela eta
- b) horregatik
- c) nolana ere
- d) hain zuzen ere

35, Inazio! Ez daukazu begi txarra!

- a) Utikan
- b) Hor konpon
- c) Bejondeizula
- d) Alde hemendik

36 Egurrezko santuaren oinetan,, asto bat eta lehoi bat ikus zitezkeen.

- a) han-hemenka
- b) hara-hona
- c) ezker-eskuin
- d) goian behean

37 Herrian ez zuen suerte askorik izan; Donostian,, biziak irribarre egin nahi izan zion.

- a) ostera
- b) hain zuzen
- c) beraz
- d) gainera



38 "Eurak ere afaltzera zetozela esan ez zidaten, bada, gurasoek!" Zer gertatu zen?

- a) Gurasorik gabe afaltzeko asmoa nuen.
- b) Gurasoak afaltzera gonbidatu nituen.
- c) Gurasoek ez zuten afaltzera joan nahi.
- d) Gurasoak ezer esan gabe azaldu zirela.

39 Kartetan jokatzeko proposamena egiteko, zein dago GAIZKI?

- a) Jokatzen dugu?
- b) Goazen jokatzera!
- c) Jokatuko dugu?
- d) Joka dezagun!

40 Guztiok bakean biziko bagina, ondo

- a) egon gaitezen.
- b) geundeke.
- c) egongo ginen.
- d) egon litzateke.

41 Hemen gertatu zen hori, baina edozein lekutan

- a) gerta zatekeen.
- b) gerta zitekeen.
- c) gertatu bide zen.
- d) gertatuko zen.

42 Gure gizarteak begirunea eta zaintza dizkie adineko pertsoneri.

- a) behar
- b) galdu
- c) artatu
- d) zor

43 Hiru gizon atxilotu dituzte genero-indarkeria

- a) egotzita.
- b) gaitzetsita.
- c) epaituta.
- d) ezarrita.

44 "Esne-mamitan" bizi garela diogunean, zer adierazten dugu?

- a) Osasuntsu gaudela.
- b) Ezin hobeto bizi garela.
- c) Esneki asko hartzen dugula.
- d) Gurasoen etxean bizi garela.

45 "Haren ideiekiko atxikimendua adierazi zion idazleak." Zer adierazi zuen?

- a) Arbuioa
- b) Ezaxola
- c) Adostasuna
- d) Mespretxua

46 Ez gaude galtzen ohituak eta

- a) amore emango dugu.
- b) ez dugu etsiko.
- c) makurtuko gara.
- d) ez diogu eutsiko.

47 Zein da zuzena?

- a) Horretarako eskatu behar da frogak
- b) Ez ditugu inolako arazorik aurkitu.
- c) Gogorregia naizela? Ez dizut ukatuko.
- d) Oso zailak dira kontu horiek ikastea.



48 "Ezkontideak begirunea galdu dit". Zein da baliokidea?

- a) Ikusmen-arazoak ditu.
- b) Ez da lehen beste arduratzen.
- c) Ez nau errespetatzen.
- d) Ez natzaio hain erakargarri.

49 "Euskarri finkorik ez izanagatik ere, sendo agertu nahi dugu." Bilatu baliokidea.

- a) Euskarri finkorik ez dugunez, sendo agertzen gara.
- b) Euskarri ahulak ditugun arren, sendotasuna erakutsi nahi dugu.
- c) Euskarri gogorrik ez dugulako, ahul agertu behar
- d) Euskarri finkorik gabe ezin da inolaz ere sendo agertu.

50 Zein da "eritasuna" hitzaren sinonimoa?

- a) maltzurkeria
- b) ergelkeria
- c) adimena
- d) gaitza

51 Garai batean beste oporrak izaten zituen jendeak.

- a) erako
- b) erakoak
- c) era bateko
- d) era batetako

52 Zein dago ongi idatzita?

- a) Isterra hautsita bukatu zuen.
- b) Emakume atzegina da hori.
- c) Gastainak jaten ditut neguan.
- d) Zalaparta handia sumatu nuen.

53 Palmerak hain goxoak egiten gozogilerik ez dago Araba osoan.

- a) dituzten
- b) duten
- c) dituen
- d) duen

54 Zein EZ DA jakia, gizakiontzat?

- a) aza
- b) dilista
- c) ilarra
- d) otea

55 Eman diru pixka bat eta hemendik!

- a) diezaiola / joatea
- b) diezaiotela / doala
- c) dakiola / joateko
- d) diezaioten / joan dezala

56 Aipatu ez didate inongo mesederik egin.

- a) dizkidaten gauzek
- b) didaten gauzek
- c) dizkidaten gauzak
- d) didaten gauzak

57 Karmelori ahalegin handiagoa eska uste du entrenatzaileak.

- a) dakiokeela
- b) dakiekeela
- c) daitekeela
- d) diezaiola

**58 Zein da gramatikalki zuzena?**

- a) Ariketa hau ez dirudi zaila.
- b) Budaren estatua zutik dirau.
- c) Hori musika jotzen dihardu.
- d) Zuk zer darabilzu buruan?

59 Xalbador eta diasporaz jardun zuen hitzaldian;, Ameriketara ibili zen.

- a) izan ere
- b) bide batez
- c) behintzat
- d) hori dela-eta

60 Eskaera-gutunak hiru lekutara bidali ziren: Parisera, Bruselara eta New Yorkera

- a) hurrenez hurren.
- b) besteak beste.
- c) bakoitzari.
- d) dagokionez.

61 Ez du amore emateko asmorik; gai horrekinsegitzen du.

- a) tematuta
- b) bermatuta
- c) abailduta
- d) akituta

62 Txikitara ipuinak kontatu, orain zoriontsuago biziko

- a) bazenit / nintzateke
- b) bazenizkidaten / nintzatekeen
- c) bazenidate / nintzen
- d) bazenizkidate / nintzateke

63 "Soldaduak barreiatu ziren, iheslariaren bila." Zein dago GAIZKI?

- a) basoan zehar
- b) basoaren zehar
- c) basotik zehar
- d) basoan barrena

64 Bi artista horiek ibilbide luzea oparoa bete dute interpretazio arloan.

- a) edo
- b) baino
- c) bezain
- d) baita

65 Entzun, entzungo zizun, baina kasu egin? Lehengo lepotik hark burua!

- a) Hara bestea!
- b) Bai zera!
- c) Are gehiago!
- d) Bai horixe!

66 Zein da zuzena?

- a) Lanpostu batera aurkeztu nintzen eta ez zidaten hartu.
- b) Aurrekoari harrapatzera abiatu nintzen, baina ez nuen lortu.
- c) Otordua ustekabean igaro zitzaizen bazkalkideei.
- d) Faktore horiei dagokion erantzuna ez da erraza.

67 Bikote batean hitzak EZ DIRA sinonimoak. Non?

- a) amildu / jausi
- b) amorratu / ernegatu
- c) birrindu / suntsitu
- d) areagotu / murriztu



68 Hitz hauetatik zeinek du esanahi positiboa?

- a) Petrala
- b) Alproja
- c) Narrasa
- d) Arteza

69 "Birusaren jota hil ziren hegaztiak".

- a) aldaera gaiztoenagandik
- b) aldaera gaiztoenak
- c) aldaera gaiztoenarekin
- d) aldaera gaiztoenagatik

70 Frutak haurren elikaduran helduenean eragina du.

- a) adinako
- b) adina
- c) bezain
- d) beste

ATARIKO PROBA: ERANTZUNAK

HLEA

1	D	11	B	21	D	31	C	41	B	51	C	61	A
2	B	12	C	22	B	32	B	42	D	52	D	62	D
3	D	13	B	23	D	33	A	43	A	53	C	63	B
4	A	14	C	24	D	34	C	44	B	54	D	64	C
5	B	15	C	25	C	35	C	45	C	55	B	65	B
6	D	16	C	26	C	36	C	46	B	56	A	66	C
7	D	17	B	27	B	37	A	47	C	57	A	67	D
8	A	18	D	28	D	38	A	48	C	58	D	68	D
9	B	19	B	29	C	39	A	49	B	59	A	69	B
10	C	20	B	30	A	40	B	50	D	60	A	70	A